



## 1.- BALIO PROPOSAMENA

Behin, festa batean nengoela, bat-batean gaizki sentitzen hasi nintzen. Hasiera batean, ez nekien zein zen gaizki sentitzearen arrazoia eta nire buruari galdera hau egin nion: izan daiteke edalontzian pastillaren bat sartu didatela?

Horren aurrean, pentsatzen egon ginen faltan botatzen genuela zeozer edukitzea droga detektatzen duena. Denbora luzez egon ginen pentsatzen, eta hainbat ideia bururatu zitzaizkigun. Ez ginen seguru nola egin genezakeen erabilgarria eta funtzioanala era berean, azkenean, itsusia izango balitz, ez lukelako inorrek erosiko. Hasiera batean, lepoko moduko bat egitea okurritu zitzaigun; edalontzian sartzeko zena, eta droga detektatzeko ahalmena zuena. Baina guk zerbait praktikoagoa bilatzen genuen, horregatik ideia baztertu genuen.

Festa batera zoazenean ez dakizu norbaitek zure edarian edo norbaiten edarian substantziaren bat bota duen, ondorioz, gehiantan beldurrez egoten zara edo deseroso sentitzen zara momenturo. Hortaz, segurtasun falta horren aurrean, konponbide bat bilatu dugu: edalotzi bat, edalotzi hori, oinarrian mintz bat edukiko luke, filtratzile gisa. Horren azpian droga detektatuko duen edo erreakzionatuko duen erreaktibo bat edukiko luke, beroa sortuko duena edalontzia guztiz berotuz. Hori dela eta, gure produktuak erosotasuna eta segurtasuna emango dizu, hau da, kalean zerbait edateko garaian norbait zure edarian zerbait bota ezkeru momentuan jakingo duzu. Gainera, gurasoak direnetzat ere, segurtasun hori izango dute haien seme-alabak festetara joaten direnean.

